

Euskaltzaindia bere illeroko Batzarrean

Toribio Etxebarria'ren berri beltza Caracas'tik

AITA PATXI ETXEBERRIA' RI ONGI ETORRIA

Formosa aldean mixolari dabil aspaldi onan Patxi Etxebarria, jesulaguna. Poz-positik ikusi degu Euskaltzaindiko Billeren agerua danean, eta Manuel Lekuona jaunak, ongi etorria egin dio guzior izenean.

GURE ILLAK

Illberri ditugu euskaltzain laguntzaile ziran Seminario Rojas Jose Maria ta Toribio Etxebarria, elbartz ezaguna. Manuel Ortizar apaiza ere aitua izan da, bere larogei ta ama-sei urterekin il baita. Goian beude!

ESKUTITZ ARTU-EMANAK

San Martiñ, idazkariak, artu diran eskutitzen berri eman digu urrengo. Aurrean, Xabier Gereño'rena aitatu du. Onek bere etorri-efiziaz adierazi digu berean, eta Ministro berria izendatu duten ezker Lora Yamayo'ren ordez, oraingoari berriro idatzi bear genikola esaten digu, lengo-egorekin bezela, berarekin egoteko txangoa eskatuaz. Jakin dezala berriak ere, gure irakasitzaileak ditugun euskal-asmoak, Ontzat artzen da asmo ori.

Irigarai jaunak, berdintxu eskatzen du berean... Alpontxo'k bere berriak ekartzen ditzkigu, Bilbo'n lege-barruan baita izan dan ikastolari buruz. Eskola legez baita izan ezker, bereala ematen omen dute «Cartilla de Escolaridad» izeneko agiria ere. Ortik ikasi nola jokatu bearko degun beste ikastolak sortzerakoan.

ONATI'KO BATZARRERAKO LAGUNTZA-ESKE

Aurten Euskaltzaindian Urrezko Ertzak dirala-ta, diru-egutza gela-gea eskatzekotan gera gure Aldundi-ta zenbat Erriko Etxeri. Eskatu zaio laguntza ori Bizka'i-ko Aldundiari. Araba'n iru euskaltzain aukera bitez laguntza orren eske joateko.

EUSKALTZAINDIAREN BILERAK

Aurten Urrezko Ertzak ditugula-ko, Billera gela-gea ere egon ditez-kola esaten dute. Ala egitekotan gelditzen gera. Araba'n eta Napar-roa'n egunik eta illabeterik egokie-nk zehintzek izan ditezken asmatzen aritu dira. Aita Baztarrika' Araba'tik eta Diaz de Uzturrin eta Satrustegi apaizak Naparri'etik zerbaite erabaki nal lukete ortaz. Araba'ko Uztalla aukeratu da. Naparri'eko Xabier'ko Frantzisko Donasen egua Abendu. Baiona'rako lendik Azara izentatua dago.

ONATI'KO BATZARRERAKO ALEGINAK

Otarako izendatua dagonen Batzardeak, Onati'ko alkatea ikusi bear lukela diote. Ala egotekotan gelditzen dira lagun oiek.

IDAZLE-BATZARRA

Euskaltzaindian laguntzarekin, baiña onengandik etena ta bere buru-jabe dirala, idazleak beren Batzarra izatea komeni dala diote. Batzar ortan, idazleak beren irizirik eman al izango dituzte, Euskaltzaindia'k Euskeraren Batasunerako artu nai lituzken bideei buruz. Onela, indar aundiegia izango dute gure erabakiak. Beartu gabe ta elkarren irizirik entzunda, askoz legunago joango dira ortarako alegiak. Mitxelena jaun, guzior irizirik jartzen da Batasun-Batzardearen Buru.

EUSKAL-LIBURU-ARGITALBENAK

Azku'ren liburua batzuek berrargitaldu nai gertuzke urte onetan. «Gran Enciclopedia Vasca»-ren barruan asialk dira Azku'ren MORFOLOGIA, LATSIBI ta beste batzuek argitalzen.

Lafitte apaiz jaunak, 1.500 itzelo itzegotxo bearreko bat egitea, bere kargu artua du.

Azku'ren ipulostatik sukera eginda, San Martiñ'ek dauden-daude-nea argitalzekotan ditu «Kulikka-Sortan».

Mitxelena'ren «Azku'ren Itzegi-oren iturriak»-lana argitalzeko, argitaldari batzuekin itzegin bearra dago. Eginkizun au Valverde, Oregi ta Onatibia'ren gain uzten da.

Berrondo apaizak, Onati'ko Batzarre-rako gal bezela ikastolak eta Legea ar ditokola diote. Gure eskolak legepean jartzeko zer egin bear dan jakiteko, Santamaría jauna izenda-tzen dute, gal au garbi zezan.

BATASUNA TA GURE ESKABIDEAK

Euskeraren Batasuna ta Gobernuari egin ditzoguen Euskerari-aldoko eskabideak indartzeko bideak izan-gu dira Onati'ko Batzarrean aitzatekoak. Katalan eta gallegoel ere, gure deiak egitea komeniko litzake, guzior eskabideak elkartuta joa dezagan. Urrengo urterako Symposium bat gerta ditzeko katalan eta galiziarrekin batez ere.

LIZARDI-SARIAK UTS.

Lizardi Sarirako Iru lan etorriak ziran, nunbait. Eta aurtengo lanak sarri-gai ez dirala, erabaki dute mailakoak. Auek Arrue, Golkoetxo ta San Martin izan dira, ta auen esanera, aurtengo sarria urrengo urtekoarekin batuko da.

Villasante prantzizkotarrak, beste saririk ezin sortu ote ditezken, gal-detzen du. Ala izan ditekela bat, diote, Ensaldo-Sarria.

Zatarain jaunak ALTUBE-SARIA jarri bear gurekela diote. Teknikakontuak erriaren mailan adieraziko litzukean laner saria izango litzake su: «Vulgarizazio-Saria», alegia. Bere aldetik, ontarako 5.000 pezeta poz-ikit emango litzukeala esaten digu. Kontuan artzen da Zatarain'en esana ta eskeintza.

AMILLAITZ

Baiona'ko Musee Basque'k argitaratzen duan aldizkarian azken zenbakian Pierre Lafitte kaleratze ta euskaltzain jaunak egiten dituen aipamen berezi bat T. Etxebarria elbartzarraren Ibilbarria izeneko liburu ederrari. Ta ala bat bialdu monaspartidit erbesterturik Caracas'en bizi zan erkidea. Potesz erantzun-go zuan ustetan nengoala, berri beltz bat jasotzen nengoala: erantzun zidan.

Apirilaren 18'an il zan Toribio Etxebarria Caracas'en, bere alabarren etxean baiña maite zuan eririk urrun. Munduz-mundu ibiltari iritzeria beartu zan gizonak bere atsedena arkitu du. Gimbeste biltzera nekegarriren ondoren inongo lur otzak irautsi beor. Mundua oso tristea da genentzat. Ta ala izan da Toribio'rentzat.

T. Etxebarria, Eibarren jaio zan 1887'an. Autodidaktia bazan ere, jakituriaz ondo onitua egoan. Amari urterako lanera joatera beartu zan, jantzi pobre batean sortua zunez. baiña bere kabuz jardunaz igo zan maillaz mailla, Eibarko udal-etxeko sekretarizta erametik, Alfa'ren sortzaile eta zuzendari izatik Espainia guztik Campsa'ren buru izatera. Denbora bateko Eibar'ko sozialisten burustariko bat

izan, Amuategi, Madinabeitia eta Meabe'ren ondoren.

Sortzetik zeraman barneko kezka ta jakite egaria, naiz politikaz, fides edo esistentziaren arazoetan beti nabaitu zan kezkatu. beti biltari, beti aruntzagoko joereri begira. Zentzuez jokatzeko eta zintzo bereziak ere ta bere dotriña orren bernean on egiaz igo da mundutik. Baldin on egitea bada familia askoren ogia lortzen. Ta gainera inoiz ez zuan nai ogia lortu zutenen eskerrik, ta esker-erkereri ez zion juramontik egiten. Mundura urri etortzen diran gizon oietakoa guzian urri Toribio.

Berak eragindako azien frutuak notzabai erneko dira. Bere egintze-kin iratzartu zigun ispiratua ta bere obrak gerokeone skuetan ere itzeke izango dira. Zeren amaika liburu mardul utzi digu lurraeren gainetik gizonen alderako maitezunes igo zan onek. Mexikon argitaratu zituan erderaz Metafisica a Urcola (berak munduaren itzateri buruz zituan irizirikin). La experiencia socialista (berak bizi izan zuen politikar azaroa bere eririk ikusia). El Hijo del Hombre erlijioa Ebanjelio bidez eta orainko jokaraz ikustiz). Tres ensayos (amari, jakintzari eta

ototzari buruz). Eta Viaje al pais de los recuerdos geldutzen da argitaratu gabe, bere gazarok oroitzen penak oiharrit dituala egia.

Erbestein txertatu zitzaion erri-gogoari ere ez zion ukorik egin eta bere guraso izkuntza zeatz aztertu zuan. Ikusi besterik ez dago bere Flexiones verbales de Eibar eta Lección del euskera dialectal de Eibar, Eibar'ko adituz-joko ta itzateri buruz, 10.000 fitxa inguru biltzen ditua izen zeatzasunez. Lan auker Euskaltzaindian «Euskera» aldizkarietan argitaratu ziran, eta ongi merezita, aukeratik, Euskaltzaindik bere laguntzaile izendatu zuan 1905-garren urtean.

Baiña ori ez da guztia. Aspalditik etorren euskeraz zenbait uldizkari-tan dzere lantzeko argitaratzen: Eusko-gogoan'ni asi eta Eibar aldizkari-rra arte, Euskera, Egan eta Olerit' tik pasatua. Baiña oietan argitara-tuak gutxi batzuek besterik ez ziran, oiek eta oiez gainera zabutuanekin izango urtan argitara-tu egin bere euskeraz lan nagusia Ibilbarria-n, Ixaropena argitaldaria. Ixa bosteun orrialde dituan lana, bertsoz eta izulaz egita. Ge-nuk bere buruz egintak eta gutxi batzuek izulpenek. Bertan azal-tzen ditu egituen bere pentamentu, sentipen, ibiltzerak, eta abar, goian ditudan bezala, P. Lafitte jaun-agnandik orren arrera ona izan duan liburua du. Eibar'ko euskeraz egita. Ta, Eibar'ko euskera aberatsa ez bada ere, bai ugaria, ugariasuna-aren aberastasuneak gutxi iraba-tzi al izateko.

Nola leikean ainbeste lan? Ba, bai. Bere izerdiaren nekez bere barruko almazena ondo bete zunez, duan eskeindu ditzkigu. Bertso baitean dion bezala:

Sari bako gauzetan aritzen danari, ez interesa aittatu, alperrik ba ari.

Liburu ongi egin nion itsaurra nion bezala, gizonak ere arbolak, bezala, bener fruitutik ezagutzen dira onduen, eta Toribio, bai idiez eta bai egintzaz, bere asmirik onen-k eskeintzaz pasatu da mundutik. Inoiz on egitearen pogiari begiritu gabe, naiz ta azkenerako bere burua erbesteaz zear urritseko lur otzetan eritzi-zeru kondenatua agertu bear. Ta, orrela izan da, bere bertso batean alde zurretik agertu zuan bezala:

ala geingoa ez bertako t'amaitu biar erbesteko.

Eritzura izanarren, alkarren artean genduan urteen diferentzia gut-tik ez nuan izan aukerarik perso-nalki ezagutzeko bera, o 1939'ko udaran Hendakara etori zan arte. Artsalde atsegiña ura pentalar ta ibiltariarekin igarota. Bere bertsoz gogoratuko nuke:

...bere kapelapeko igartutako arpegian, zeru urdin guztietako laztanen gozia zeroyan; bidietako ikusizunen ederra begien barruan, eta bta egun urteko soñuak belarrietan.

Baiña andik lasterrera diabetic gaitza aspianean iri zitzaion eta ain itxura ona zuen gizon ura urte-rik urtera beora etorren. Baiña, ala ere, ez genuan espero orren aguro ilgo zanik.

Ez dakit nik bialdua urtuko zuan, baiña nik beragandik artu berri nuan argitara gabe gelditu zitzaiz-kion lan sorta bat. Bertsoz eta iz-lauz, batez ere Margarita Nafarroa-koaren ipui geigoren itzulpenez, eta Ondakiñak izenburutzat duela. Noizbait eta nunbait argitaratuko al da. Bere ilburakotzat, Ibilbarria-n liburuaren irabaziaz Eibarko hospitalerako utzi ditu. Beraz, azken borondatea era olaioa izan du gi-zonak, alperrik bere lurretik urrun arkitu.

gizon apurtu bakarra bixiran illunabarra...

Domatu bearezeko gauza gutxi izango zuan bere barnean, ta bai kontzientzia nunni zabal eta bai sai agertzeko. Munduak zergatik emango ote ditu orrelako gizonak ain urri?

JUAN SAN MARTIN



Ezkerretik eskumara: L. Ormaetxea, T. Etxebarria ta E. Alberdi. Eibar'ko Iru euskaltzale Endaya'n 1953'an.

GURELESA




Gipuzkoa'ko ta Naparroa'ko esne onenakin gertatutako esnekiak:

- Esne Pasturizata
- Esne solla (esterilizata)
- Esne autaa
- Esne-gaifsa
- Gurina
- Yogur
- Batiduak

Igara suzoa - Apart. 213 - Urrut. 29060 (lau ari) — DONOSTIA

SIGMA

Elgoibar



- Konturabak gande aputaki
- Erliko ta orbestoko,
- Oso itxura ber da batek
- Au ondo ez litzeteko.
- Ezko - berriak bear dutea
- Bizimodun asteke,
- Etxe - bitza egokia ta
- «Sigma» makina josteko.